

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

243. zenbakia

Data 1997-12-22

18261 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Ibilgailu arineko garraio zerbitzuen erregelamenduaren aldaketa behin betiko onartzea

DONOSTIAKO UDALA Hiri Mantenimendu eta Zerbitzuetako Administrazio Bulegoa Iragarkia

Donostiako Udal Plenoak 1997ko ekainaren 23an izandako Gobernu Batzordean, behin betiko onartu zuen Ibilgailu Arineko Garraiotarako Hiriko eta Hiri arteko Zerbitzuetako Udal Erregelamenduaren eraldakuntza testua, eta 1997ko azaroaren 3an aipatu testuan ikusitako hutsen zuzenketa; arauteria ondoren adierazita dagoen bezala geratu da. TAXI ZERBITZUAREN UDAL ARAUDIA I. ATALBURUA ARAUDIAREN ZERTARAKOA

1. artikulua.

Konstituzioak 140. artikuluan ezartzen duen autonomi printzipioan oinarrituta, Udal honek taxi zerbitzua arautzeko dituen ahalmenez baliaturik honako araudi hau ematen du.

2. artikulua.

Donostiako Hiri Barruko Taxi Zerbitzua emateko modua eta bere antolamendu eta funtzionamendua arautzea du helburu agiri honek.

Agiri honetan araututako zerbitzuak ematerakoan Lehorreko Garraioa Arautzeko Legeak eta Araudiak xedatutakoa bete beharko da, baldin eta baimena duten ibilgailuak hiri arteko garraiorako erabiltzen badira.

3. artikulua.

Donostiako udalerrri osoan barna kontagailuz neurtutako zerbitzuak eman ohi dituzten ibilgailuei ematen zaie taxi izena. II. ATALBURUA IBILGAILUAK, IBILGAILUEN JABETZA ETA ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK 1. ATALA. ARAU OROKORRAK

4. artikulua.

Agiri honetan araututako zerbitzuak emateko udal lizentziari atxikitzen zaion ibilgailuak titulu hauetako baten pean agertu beharko du lizentziadunari lotuatituluok ibilgailua izan eta erabiltzea ahalbideratzen dute:

Jabetza.

Gozatzeko eskubidea.

Alokatze arrunta, gutxienez urte betez kontratatua.

Alokatze finantzarioa edo leasinga.

Titulu guztiak lizentziadunaren izenean agertuko dira Trafikoko Zuzendaritza Nagusiko agiritegietan edo eskuduntza duten beste batzuetan eta, batik bat, udal honetan horretarako eramaten direnetan.

Udal Erregistroan, aurrekoaz gain, honako datu hauek ere jaso beharko dira: Lizentzia lehenengo aldiz eman zenetik egin diren eskualdaketak, gidariaren izena, zer aseguru etxeri kontratatu zaion bezeroei eta besteri egindako kalteen kontrako poliza, ezarritako huts eta zehapenak eta garrantzitsu iritsitako beste edozein argibide.

Hiri Mantenimendu eta Zerbitzuetako Administrazio Bulegoa edo udal antolamendua aldatuz gero, haren ordeztartzen dena arduratuko da erregistro liburuaz.

5. artikulua.

Udal lizentziaren jabeak lizentziari atxikitutako ibilgailua alda dezake, baina beste ibilgailua erabiltzen hasi baino hogeit egun lehenago Udalarari eman beharko dio haren ezaugarrien, baldintza teknikoen, markaren eta modeloaren berri eta, hala agintzen bazaio, alkateak erabakitako udal zerbitzu teknikora eraman beharko du, zerbitzua emateko beharrezko eta komenigarri diren segurtasun eta mantenimendu baldintza teknikoak betetzen dituela egiaztatzeko.

Datu horiek Udalaren esku jarri eta hogeit egun iraganda, ordeztoko ibilgailua erabiltzen has daiteke, baldin eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu.

6. artikulua.

Taxi zerbitzuko ibilgailua galdu, erabiltzeari utzi edo bizirik daudenen arteko ekintzen bidez eskuz aldatuz gero azken kasu honetan, zer lizentziari atxiki zaion axola ez diola, lizentzia baliorik gabe geldituko da, baldin eta eskualdaketa egin, galera salatu edo erabiltzeari utzi zaionetik hiru hilabete baino lehen, lizentziaren jabea ez bada bere jabetzako beste ibilgailu bat zerbitzua emateko erabiltzen hasten, behin aurreko artikuluan aipatutako baimena eskuratuta.

Baimen hori, berariazko erabakiz zein isilbidez, hiru hilabeteko epearen barruan ematen ez bazaio, lizentzia baliorik gabe geldituko da.

7. artikulua.

Agiri honetan araututako zerbitzuetan erabiltzen diren ibilgailuek honako ezaugarriak izango dituzte:

Karrozeria itxia, ateak kotxean eroso sartzeko modukoak eta maniobrak erraz egitea ahalbideratzen duen funtzionamendua.

Neurriak, barnealdea eta jesarlekuak horrelako zerbitzuetan ohiko diren segurtasun eta erosotasuna ziurtatzeko modukoak.

Ateek bezeroari leihoak irekitzen uzten dion mekanismoa izango dute.

Bai atean bai atzealdean ahalik eta ikuspeirik zabalena eta argitasunik gehiena lortzeko behar beste leihatila izango ditu, beira garden eta ezpaletan zatitu ezinez eginak.

Barruan behar beste argi izango ditu eta su itzalgailu bat eramango.

Bai erabiltzen hasterakoan bai urtero, Udalak erabakitako egunean, ibilgailuak ikuskatuko dira ezaugarri horiek guztiak dituztela egiaztatzeko; horren gainean hartzen diren erabakiak behar bezala arrazoituak izango dira eta udal zerbitzu teknikoen txostena eramango dute. Zerbitzu teknikoek noiz eta nonahi azter ditzakete ibilgailuak, salbuespen gisa, eta, araudi honetan eskatutako baldintzak betetzen ez dituztela egiaztatuz gero, zehapen espedientea abian jarriko da; horrezaz gain, alkateak ibilgailua zerbitzuan ez erabiltzeko agindua eman dezake, baldintza guztiak bete eta beste azterketa

tekniko bat gainditu arte. Alkatearen aginduari men ez egitea huts larritzat joko da.

Ibilgailuek irratiz komunikatzeko sistemarik izanez gero, Udalak Udaltzaingoarekin lotzeko agin dezake.

Ibilgailuan irratia piztu nahi izanez gero, bezeroari eskatu beharko zaio baimena.

Lehen aipatutako organo eskudunek agindutako azterketak noiznahi egin ahal izango dira, eta ez da ez kitapenik egingo ez ezein tasarik ordainaraziko; dena dela, huts egiterik egiaztatuz gero, zehapena ezarriko zaio huts egileari.

8. artikulua.

Jendearentzako zerbitzuan erabilitako ibilgailuek gutxienez 9 HPko zerga-potentzia izango dute, bai eta bost bidaiarientzako tokia ere, gidaria barne.

Bestalde, taxi zerbitzua emateko lehenengo aldiz erabiltzen direnean, gehienez ere bost urte izango dituzte, matrikulatu zirenetik.

9. artikulua.

1. Ibilgailuaren barrualdean iragarkiak jartzeko Udalari baimena edo lizentzia eskatu beharko zaio. Iragarkiok, gehienez ere, 40 cm²-ko azalera izango dute eta ez dute ikuspegia oztopatuko ez aurrealdetik ez atzealdetik ez eta alboetatik ere.

2. Kanpoaldeko iragarkiei dagokienez, Zirkulazioari buruzko Araudi Orokorrak, araudi honek eta erakunde eskudunek taxien kanpoko ezaugarriei buruz ematen dituzten arauak bete beharko dira.

3. Udalak erabakiko du zer baldintza bete behar dituen publizitateak, taxi zerbitzuko ibilgailu guztiek antzeko itxura izan dezaten.

4. Publizitateagatiko ordainarazpenak ordenantza berezi batean edo gehiagotan arautuko dira.

5. Ez barrualdean ez kanpoaldean ezin da ezein iragarki, idatzi edo marrazkirik jarri, baimenik izan gabe.

6. artikulua honetan xedatutakoa bete ezean, zehapen espedientea abian jarriko da, eta hutsa larritzat joko. 2. ATALA. LIZENTZIAK

10. artikulua.

Agiri honetan araututako zerbitzuak eman ahal izateko, ezinbestekoa da Udalaren lizentzia.

Lizentziek jabe eta ibilgailu bana izango dituzte, eta jabe eta ibilgailuek, lizentzia bana.

Lizentzia Udaleko alkate-udalburu jaunari eskatuko zaio. Eskabidean honakoak azalduko dira: Eskatzailearen ezaugarri pertsonal eta profesionalak, ibilgailuaren marka eta modelo eta, hala badagokio, homologazioa, zer taldearako eskatzen den zehaztuta.

Lizentzia sortu berriak edo aurreko jabeek utzitakoak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea amaituta, Udalak zerrenda argitaratuko du Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, eta hamabost egun emango, interesatuek eta lanbide horretako elkarteek beren eskubideak defendatzeko egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Udalak egiaztaturiko eskubide gehiago dituztenei emango dizkie lizentziak.

Lizentziak lehiaketa bidez esleituz gero, toki erakundeen kontratazio arauak bete beharko dira.

11. artikulua.

Zerbitzuaren onerako beharrezkoa edo egokia izanez gero, Udalak lizentzia gehiago emango ditu.

Hala denentz jakiteko honako alderdiok aztertuko dira:

- a) Zerbitzuaren kalitatea eta hedapena, lizentzia gehiago eman baino lehen.
- b) Zerbitzuak hartzen duen eremuko auzoen ezaugarriak eta hazkundera.
- c) Zerbitzu hobea edo zabalagoaren benetako beharra.
- d) Lizentzia gehiago emateak garraioan eta zirkulazioan izango duen eragina.

Lizentziok emateko espedientean, lanbide horretako elkarteei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei aditzeko hamabost eguneko epea zabalduko da.

Horretarako, iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, interesatuei banan-banan jakinarazi beharrik gabe.

12. artikulua.

Araudi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituzten gizakiek baino ezin izango dute lizentzia eskatu.

13. artikulua.

Lizentziaren jabeak gidatu beharko du ibilgailua. Hala ere, lizentziaren jabea ez den gidari batek ere gida dezake baldin eta lizentziadunak lan kontratu pean kontraturik badu, bai eta lizentziadunaren ahaideren batek ere, lanaren zuzenbide antolamenduak lan kontratua beharrezkotzat jotzen ez duen kasuetan. Azken kasu honetan, ezinbestekoa da bat-bateko behar bat izatea, behar bezala egiaztatua. Lan kontratupekoak edo ahaideak gidatu ahal izateko Udalak eman beharko du baimena, gidariak ezinbesteko gaitasun saioak gaindituta.

Arau horiek hautsita, ibilgailua artikulua honetan xedatutakoa bete gabe gidatu dela ohartzuz gero, jabeak lizentzia berez eta besterik gabe galduko du.

14. artikulua.

Lizentziak ezin dira eskuz aldatu, honako salbuespenak salbu:

a) Lizentziaduna hilez gero, lizentzia bere alargunaren nahiz legezko oinordekoen eskuetara igaro ahal izango da. Lizentziaduna hil eta lau hilabete iragan baino lehen ez bada argitzen, notario agiri bidez, lagun horietatik zeinek eskuratu behar duen lizentzia, Udalak alargunari emango dio, berez eta besterik gabe, eta oinordekoek, elkar hartuta ere, ezin izango dute erabaki hori aldatu. Alargunik egon ez eta oinordekoek notario agiria epe barruan aurkezten ez badute, lizentziak bere balioa galduko du, berez eta besterik gabe.

b) Lizenziaduna erretiratu gero edo alargunak nahiz legezko oinordekoek ezin badute lizentzia ustiatu, nornahik eskatu ahal izango dio lizentzia Udalari, baldin eta gidatzeko udal baimena lortzeko araudi honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu; hala ere, lizentzia horri atxikitutako soldatapeko gidaririk egonez gero, eskualdaketa nahitaez haren alde egin beharko da, baina, erosteko lehentasuna eman beharko zaie, lehendabizi, jabearen nahitaezko oinordekoei eta, bigarrenik, lizentziari atxikitako soldatapeko gidariari. Oinordekook gidatzeko udal baimena eskuratzeko azterketa egiteko eska dezakete, 39. artikuluan araututako deialdiaren zain egon gabe.

c) Gaixo jarri, istripua izan edo ezinbesteko beste edozein arrazoi dela eta (baimena behin betiko kendu zaiola, kasu), lizenziadunak ezin badu bere lana bete, b zatian esandakoaren arabera jokatu beharko da. Lizenziadunari lan egitea galarazten dioten arrazoiaren frogagarriak espedientean jaso beharko dira.

d) Lizentziak bost urte baino gehiago izanez gero, jabeak interesatutako edozeini eskualdatu ahal izango dio, Udalari baimena eskatu ondoren, baldin eta interesatuak gidatzeko udal baimenerako azterketara aurkezteko araudi honetan eskatzen diren baldintzak betetzen baditu. Lehengo jabeak ezin izango du udalerrri honetan lan egiteko agiri honek araututako lizentziarik lortu, hamar urte iragan arte, eta lizentzia eskuratu duenak ezin izango du berriro eskuz aldatu, lan horretarako ezindurik gelditu edo hiltzen ez badahala gertatuz gero, artikulua honetako aurreko puntuetan azaldutako lagunei eskualdatu ahal izango lieke. Lizentziaren eskuratzailak berak gidatu beharko du beti ibilgailua; hala egin ezean, behin betiko galduko du.

Eskualdaketa egitean artikulua honetan xedatutakoa betetzen ez bada, lizentzia baliorik gabe geldituko da, Udalaren akordioz, administrazioak berak hala erabakita edo ezein interesatuk hala eskatuta hasitako espedientea bideratu eta gero.

15. artikulua.

Udal lizentziak taxi zerbitzurako berariaz emandakotzat joko dira.

Lizentzia guztietan adierazi beharko da baliorik gabe geldituko direla baldin eta haiei atxikitutako ibilgailuek ez badituzte araudi honetan eskatutako baldintzak betetzen.

16. artikulua.

Zernahi dela eta, taxi baten lizentziaren jabe bilakatzen den orok bi era hauetako batean eman beharko du zerbitzua: berak lan eginez edo soldatapeko gidari bat kontratatuz. Nolanahi ere den, gidari bakar bat atxikiko zaio lizentzia bakoitzari, dela lizentziaren jabea dela soldatapekoa.

Azken betekizun hori ez zaie eskatuko epaileak onartutako eskubideak dituzten jabeei.

Artikulu honetan ageri diren baldintzak betetzerik ez badago, lizentzia eskuz aldatu beharko da, 14. artikuluan jasotako kasuetan.

Araudi hau indarrean sartu eta hiru hilabete iraganda eskualdaketa egin ez bada, lizentziari uko egin zaiola joko da, bai eta aldarrikatu ere, Udalak horretarako hasitako espedientea gauzatu eta interesatuari eta, halakorik balego, soldatapekoari aditu ondoren.

Inori ez zaio, inola ere, lizentzia bat baino gehiago emango.

17. artikulua.

Udalak lizentzia eman eta hirurogei egun iragan aurretik, lizenziadunak zerbitzuak ematen hasi beharra dauka, lizentziari atxikitako ibilgailuaz.

Epea iraganda, lizentziadunak ez badu luzapenik eskatzen beti ere berari ezin lepora dakizkiokeen ezinbesteko arrazoiak egiaztatuta, lizentzia baliorik gabe geldituko da, berez eta besterik gabe.

18. artikulua.

Lizentziaren jabeak, zerbitzua ematen hasi eta lehenengo hiru egunean, Udalari jakinarazi beharko dizkio bere ibilgailu zein gidariarekin zerikusia duten gertaera guztiak, hala nola, gaixotasun edo istripuagatik zerbitzua aldi batez eten izana edo hiri arteko zerbitzuak emateko udalerritik kanpo hogeita lau ordu baino gehiago egon izana, nora joan eta noiz itzuli den adierazita.

Hiritik kanpora egindako bidaiak aitortu ezean, zerbitzua eman izan ez balu bezala jokatu da eta dagokion zehapena jarriko.

19. artikulua.

Alkatearen ebazpen nahiz bando batek finkatuko du taxien geralekuak non egongo diren, gehienez zenbat ibilgailu joan daitezkeen bakoitzera, nola egon behar duten aparkatuta eta zer ordenatan hartuko dituzten bezeroak. Erabakia hartu baino lehen, dagokion motako elkarte garrantzitsuei adituko zaie baina beren iritziek ez dute behartze indarrik izango. 3. ATALA. TARIFAK

20. artikulua.

Alkatearen ebazpen batek finkatuko ditu agiri honetan araututako hiri barruko zerbitzuengatik kobratu beharreko tarifak, lanbide horretako elkarteei eta kontsumitzaile eta erabiltzaileenei aditzeko hamabost eguneko espedientea burutu eta gero. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarriko da epea noiz hasiko.

Tarifak, euskaraz eta erdaraz idatzita, ibilgailuaren barrualdean jarriko dira, bezeroarentzat ikusgai gelditzeko moduan.

Horretarako, tarifak ibilgailuko aginte-mahaiaren eskubialdean eta aurreko jesarleketako baten atzealdean, goialdean, jarriko dira, metalezko xafla batean nahiz plastifikatutako kartoi batean grabatuta, Udalak emandako formatuaren arabera.

Tarifak ulerterrazak izan daitezzen eta kasu gehiegi zehaztu ez ditzaten ahalegina egin beharko da. Nolanahi ere, zerbitzu jakin batzuegatik ordaindu beharreko osagarri eta tarifa bereziak zehaztu beharko dira, esate baterako, kirol zelaietara, ospitaleetara, aireportura, geltokietara edo hilerria egindako bidaiengatik nahiz hiriko jaietan, Eguberri egunean, Urteberri egunean, Ihauterietan, Aste Nagusian eta alkatearen ebazpenez erabakitako beste hainbat egunetan ordaindu beharrekoak. Ez da osagarririk jarriko hiriko inongo auzotan, urrunen bizi direnek gehiago ordaindu behar izan ez dezaten. Eskuan eramatekoa izan ez eta maletategian doan poltsa bakoitzagatik osagarri bat ordaindu beharko da. Araudi hau indarrean sartu eta urtebeteren buruan auzoetako osagarria desagertuko da.

Jabearen esku gelditzen da bezeroei animaliak kotxean eramaten uztea ala ez, baina eramanez gero osagarria ordaindu beharko dute.

Tarifek lizentziaren jabeak, gidariak eta bezeroak lotzen dituzte.

Bidaia amaituta, gidariak, bezeroak hala eskatuta, ordainagiri izenpetua emango dio, eta bertan egindako ibilaldia, ordaindutako kopurua eta data adieraziko.

21. artikulua.

Tarifak aldatzeko, finkatzeko orduan emandako urrats berak, aurreko artikuluan xedatutakoak, emango dira. 4. ATALA. IBILGAILUAK

22. artikulua.

Taxiek km-kontagailua eramango dute barrualdean, karrozeriaren aurrealdean, behar bezala egiaztatua eta zigilizatua, markatzen duen diru kopurua bezeroarentzat uneoro ikusgai egoteko moduan jarria eta iluntzetik goizaldera argitua.

Kontagailuak baldintza hauek bete beharko dituzte zerbitzu teknikoek noiznahi egiaztatu ahal izango dituzte:

a) Kontagailuak, kokatuta dagoen tokiagatik, argi ikusten utzi beharko du ibilgailua hutsik ala alokatuta dagoen.

b) Zerbitzuagatik ordaindu beharreko zenbatekoak tarifa ofizialekin bat etorri behar dutenak argi eta zehatz-mehatz agertuko ditu, egindako ibilaldiari eta zain egondako denborari dagozkienak, alde batetik, eta zerbitzu osagarriei dagozkienak, bestetik

c) Zigilu ofizialak ondo zainduta egotea.

d) Gurpilen estalkien diametroa eta kontagailuari atxikitako orriko azken egiaztapen ofizialean ageri dena bat etortzea.

e) Eragite kablearen azal babesleak inolako pitzadurarik ez izatea.

f) Kontagailua bezeroarentzat ikusgai egotea, jezarlekuan jezarrita eta inolako ahaleginik egin gabe ikusi eta kopuruen jauziak egiaztatu ahal izan ditzan ibilaldi osoan zehar.

g) Kontagailuak kaxan zulorik, mailaturik edo bortxaketa seinalerik es izatea eta kristala apurturik ez egotea.

Kontagailuak alkateak nahiz Industri Ordezkaritzak agintzen duten guztietan aztertu eta ikuskatuko dira.

Kontagailuak kolpe edo bortxaketa seinalerik izanez gero, ibilgailuaren gidaria eta jabea izango dira erantzule, eta huts larriei dagozkien zehapenak ezarriko zaizkie; hutsa behin baino gehiagotan eginez gero, iharduerarako lizentzia eta gidatzeko udal baimena behin betiko kendu ahal izango zaizkie.

Istripuagatik edo bestela, ibilgailuak kontagailuan eragina izan dezakeen akatsik izanez gero, lizentziadunak Udala jakinaren gainean jarri beharko du, hiru egun iragan baino lehen, ibilgailua ikuska dezan edo egoki iritzitako funtzionamendu frogak eska diezazkion.

Zuzenean kalteturiko edozein lagun, erakunde edo elkartek taxi jakin baten kontagailua behar bezala ibiltzen ez dela susmatuz gero, sala diezaioke Udalari; Udalak espedientea irekiko du.

23. artikulua.

Bandera nahiz haren ordeztarritako osagai mekanikoa jaitzitatekoan hau da, zerbitzua ematen hastean hasiko da ibiltzen kontagailua. Zerbitzua bukatutakoan, istripu edo matxurarik izandakoan, erregaia bota beharra dagoenean zein bezeroari ezin egotz dakiokkeen beste edozein arrazoi dela eta taxia geldituz gero, palanka erdiko puntuan jarriko da, hau da, martxarrik sartu gabe, eta horrek geldiaraziko du kontagailua; taxia osteratuta ibiltzen hasten denean, kontagailua berriro abian jarriko da,

baina bandera ez da oraingoan jaitsiko.

24. artikulua.

Taxi zerbitzuko ibilgailuak zuriz pintatuko dira. Taxi zerbitzukoak direla adierazteko honako ezaugarriok eramango dituzte kanpoaldean:

1. SP inizialak daramatzaten bi xafla, zirkulazio arau orokorretan agindutako baldintzak betetzen dituztenak.

2. Ibilgailuaren sabaiaren kanpoaldean, aurrealdearen erdian, tarifen berri ematen dituen modulu bat, bertan Taxi hitza jarrita; gauez argituta joango da.

Modulu hartan honakoak ere azalduko dira: Lizenziaren zenbakia, urdinez eta zifra arabiarretan 7 cm izango dituzte altueran eta zabalera, altuerari egokitua, eta jai hartzen duten egunaren inizialak.

25. artikulua.

Lizentziei atxikitutako ibilgailuek hiri arteko zerbitzuak eman ahal izango dituzte, baldin eta garraio erakunde eskudunak, arauetan xedatutakoarekin bat, baimena ematen badie.

26. artikulua.

Udal lizentzia duten taxiek egunero joan behar dute taxien geralekuetara.

Zerbitzua egokiago emateko, derrigorrezko txandak ezarri eta arautu ahal izango dira, baldin eta, azterlan teknikoetan edo saio esperimentaletan oinarrituta, komenigarri irizten bazaio. Bestalde, Udalak hala erabakiz gero, ibilgailuek lanean emandako orduak zenbatzen dituen sistema bat eramango dute, behar baino lan ordu gehiago egiten ez dituztela kontrolatzearen.

27. artikulua.

Lanean ari direla, gidariak honako agiriok eraman beharko dituzte:

a) Ibilgailuarenak:

Lizentzia.

Udal lizenziaren zenbakia eta ibilgailuaren jezarleku kopurua adierazten dituen xafla.

Indarrean dauden aseguru polizak.

Zirkulazio baimena.

b) Gidariarenak:

Zirkulazio Kodeak ibilgailu mota horretarako eskatzen duen gida baimena.

Gidatzeko udal baimena.

c) Zerbitzuarenak:

Erreklamazio liburu ofiziala.

Araudi honen ale bat, argitalpen ofizialekoa.

Sorospen etxe, osasun zerbitzu, komisaldegi, suhiltzaile eta larrialdietako beste hainbat zerbitzuren helbideak.

Hiriaren plano eta kale mapa.

Udalak onetsitako ordainagiriak; bertan guztira ordaindutako kopurua adieraziko da, bai eta zain egondako denborari, udalerritik egindako irteerei eta ordainarazi beharreko beste edozein zerbitzuri dagozkien kopuruak ere; bezeroek ordainagiriok eskatzeko eskubidea dute, eta Udalak egiaztatu ahal izango ditu, aldian behin egiten dituen egiaztapenetan.

Indarrean dauden tarifen eredu ofiziala.

28. artikulua.

Udalerriaren barruan, taxiek moduluan argi berdea piztuta eramango dute Libre daudela adierazteko. III. ATALBURUA JABEAK ETA LANGILEAK 1. ATALA. BETEKIZUN OROKORRAK

29. artikulua.

Taxi zerbitzuko ibilgailuak gidatzeko udal baimena dutenek baino ezin izango dituzte agiri honetan araututako zerbitzuko ibilgailuak gidatu.

Udalak zerbitzuaren beharrak direla eta egoki irizten dionean, taxi zerbitzuko ibilgailuak gidatzeko gaitasun saioak egingo dira, udal baimena eskuratzeko.

Donostiako Udaleko alkate jaunak emango du baimena; gaitasun saioak gainditzen dituzten guztiek eskatu ahal izango dute, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

1. Trafiko Burutzak emanda, B2 edo maila handiagoko gida baimena izatea.
2. Gaixotasun kutsagarriarik edo lanbidea behar bezala betetzea galarazten duen gorputzeko zein buruko akatsik ez izatea.
3. Zirkulazio arauak xedatutako nahiz erakunde eskudunek propio emandako bestelako baldintza orokorrak.

Izangaiek egin beharreko gaitasun saioa honelakoa izango da:

I. Saio Teorikoa.

A) Donostiako eta inguruko herrietako kale, plaza eta monumentuen kokapenari buruzko zortzi galderetatik seiri erantzutea.

B) Proposatuko zaizkien sei ibilbideetatik lau ondo azaltzea, abiapuntuan, helmugan eta ibilbidean dauden kale, plaza, monumentu eta eraikinen izenak zehaztuta.

(A eta B ataletako galderak zozketa bidez aukeratuko dira.)

C) Gai hauetaz egingo zaizkien lau galderetatik lauri erantzutea: Ibilgailu Arinen bidezko Hiri barruko eta Hiri arteko Garraio Zerbitzuen Udal Araudiaz eta zirkulazioaren eta jendearekiko eta zirkulazio zaindarekiko harremanen gaineko bando, arau edo jarraibideez.

II. Saio Praktikoa.

Taxi zerbitzuan erabiltzeko baldintzak betetzen dituen ibilgailu bat gidatzea, hutsik egin gabe, aurretik emango zaizkien bi ibilbideetatik.

Hona hemen epaimahaiko kideak: Taxi zerbitzua bere ardurapean duen zinegotzi ordezkaria, Udaltzaingoko burua eta arloko administrazio bulegoaren arduraduna epaimahaiko idazkaria izango da.

Saioak gaindituta, epaimahaiak egindako proposamena jakinaraziko zaio izangaiari, eta lau hilabeteko epea emango lan kontratua eta Gizarte Segurantzaren izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria aurkezteko. Epea iragan eta egiaztariak aurkeztu ez baditu, proposamena baliorik gabe geldituko da, izangaiak gaindututako saioek ematen zizkieten eskubideak galduko ditu eta espedientea artxibatuko da; nolahi ere, lagun horri ez zaio galaraziko berriz ere saiotara aurkeztea.

30. artikulua.

Agiri honetan araututako zerbitzuetako ibilgailuak gidatu ahal izateko, gidariak, lizentziaren jabea ez bada, lan kontratua aurkeztu beharko dio Udalari, bermaturiko soldata finkoa eta etekinetan duen partaidetza zehaztuta halakorik izanez gero, bai eta Gizarte Segurantzako derrigorrezko araubideetan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria ere.

Taxia urtebetez zerbitzurako erabili ezean, gidatzeko udal baimena baliorik gabe geldituko da.

Gidatzeko udal baimena ematen zaionean, ohartaraziko zaio bete-beteko eta osoko iharduna errespetatu behar duela eta udal baimenak ahalbideratzen duen iharduera bateraezina dela beste edozein lanekin. 2. ATALA. ZERBITZUA EMATEKO ERA

31. artikulua.

Agiri honetan araututako antolamenduaren kontra joan gabe, Udalak, ordutegia, egutegia, atsedanak eta oporrak antolatzeke jarraibideak eman ahal izango ditu, lanbide horretako elkarteei aditu ondoren.

32. artikulua.

Legeek xedatutako lan baldintzak gorabehera, taxi zerbitzuko ibilgailuen gidariak araudi honetan ezarritako baldintzak estu-estu bete behar dituzte.

Gidariak, larrialdietan izan ezik, geralekura lehen joaten den bezeroa hartu beharko dute, ibilgailuak iristen diren hurrenkeraren arabera.

33. artikulua.

Gidari bati, pertsonalki nahiz telefonoz, arauko zerbitzuetako bat emateko eskatzen bazaio, ezingo dio eskaerari uko egin bidezko arrazoirik izan gabe.

Honako kasuotan ukatu ahal izango du zerbitzua, bidezko arrazoiz:

1. Agintaritzaren ihesi dabilen baten batek eskatuz gero.

2. Ibilgailuak dituen baimendutako plaza baino jende gehiago eramateko eskatzen bazaio.

3. Bidaiariren bat argi eta garbi mozkor edo drogatuta egonez gero, beti ere bere bizitza edo segurtasuna arrisku larrian ez badaude.

4. Bidaiariak ibilgailuaren barrualdea hondatzeko moduko poltsa, fardel zein animaliak eramanez gero.

5. Bide ibilgaitzetatik joateko eskatzen bazaio, baldin eta bezeroen, gidariaren zein ibilgailuaren seguratsuna arriskutan jartzeko modukoak badira.

Nolanahi ere, gidariak gizabidez tratatu behar du jendea eta, bezeroak hala eskatuta, agintaritzaren ordezkari baten aurrean eman beharko ditu uko egitearen arrazoiak.

34. artikulua.

Gidariak ezin izango diete bezeroei galarazi maletak edo ohiko ekipajea osatzen duten bestelako fardelak eramatea, maletategian nahiz, txikiak edo eskuzkoak izanez gero, ibilgailuaren barrualdean, baldin eta sartzen badira eta ibilgailua hondatzeko modukoak ez badira.

Erretzea galarazteko kartel bat jarri ahal izango dute ibilgailuaren barrualdean. Halaber, gidariak ere ezin izango dute erre kontratatutako bidaiak dirauen bitartean.

35. artikulua.

Bidaiaria ibilgailutik atera eta gidariak bere zain egon behar badu, egindako bidaiagatik eta taxia ordu erdiz zain izateagatik hirian; leku agerietan, ordubetez ordaindu beharko lukeena aurrez eskatu ahal izango dio bezeroari, berme gisa; ordaindutako denbora iraganda, bezeroak ez du inolako loturarik izango zerbitzuarekin.

Gidariak geldialdi mugatuko alderen batean edo gelditzea debekaturik dagoen tokiren batean itxaron behar badio bezeroari, ordura arte emandako zerbitzua ordaintzeko eskatu ahal izango dio eta ez du zerbitzua ematen zertan jarraiturik.

Gidariak behartuta daude bezeroari diru xehea ematera, bi mila pezeta arte, bilete zein txanponetan; diru xehea lortzeko ibilgailutik atera behar izanez gero, kontagailua geldiaraziko dute.

Alkateak, arrazoitutako ebazpen batez, erabaki ahal izango du kopuru hori handitzea, diruaren balioa murriztu ahala.

36. artikulua.

Zerbitzua ematea galarazten duen istripu zein matxurarik izanez gero, bidaiariak agintaritzaren ordezkariaren bati eskatu ahal izango dio gorabehera hori egiaztatzeko; bestalde, ordura arte eman zaion zerbitzua ordaindu beharko du, bandera jaisteari edo hasierako tarifari dagokiona izan ezik.

Halako gorabehera bat hiriarteko zerbitzua ematean gertatuz gero, bidaiariak bi aukera ditu: Matxura konpondu arte itxarotea, konpontzerik balego, ala zerbitzua amaitutzat jo eta ordura artekoa ordaintzea.

37. artikulua.

Zerbitzua, oro har, horretarako ezarritako geralekuetatik abiatuko da, telefono-irratiz, taxi-irratiz edo beste edozein telekomunikazio sistemaz eskatu ezean.

Alkateak erabakiko du geralekuak non jarri behar bezala seinaleztatuko dira ; beren edukiera, antolamendua eta kokapena aldatu ahal izango ditu noiznahi, egoki irizten badio; erabakia hartu aurretik, lanbide horretako elkarteei iritzia eskatu ahal izango die.

Abiapuntutik helmugara doan biderik laburrenari jarraituko zaio beti, bezeroak kontrakorik adierazi ezean.

Gidariak egoki irizten badio ohikoa ez den bidetik joateari, bezeroari adierazi beharko dio zergatik. 3. ATALA. LIZENTZIAK IRAUNGITZEA ETA EZEZTATZEA

38. artikulua.

Lizentzia jabeak propio uko egiten dionean iraungiko da. Bestalde, honakoak izango dira toki erakundeek lizentziak ezeztatu eta kentzeko arrazoiak:

a) Agiri honetan araututako lizentzia duen ibilgailua beste mota bateko garraio zerbitzuetarako erabiltzea.

b) Hogeita hamar egun jarraian edo, urtebetean, hirurogei egun aldizka zerbitzua eman gabe egotea, Udalari bidezko arrazoiak idatziz aurkeztu ezean; urteko oporraldia alkateak urtero emango duen ebazpenean finaktutakoaren arabera izango da arrazoi horietako bat; oporrak arautzeko orduan, kontuan izatekoa da ibilgailuen %10 baino gehiago ezin dela aldi berean egoera horretan egon.

c) Lizentziadunak aseguru poliza eguneratua ez izatea.

d) Hiru urtean ibilgailua aztertzeraz ez eramatea.

e) Araudi honek onartzen ez duen moduan ustiatzeko, lizentzia alokatzea edo lizentzia bat baino gehiago eskuratzea, bai eta araudiak onartzen ez dituen lizentzi eskualdaketak egitea ere.

f) Lizentziak berarekin dakartzan betebeharrak eta ibilgailuaren jabetzari dagozkionak ez betetzea.

g) Gidatzeko udal baimena ez duen gidaria kontratatzea, soldatapeko langileak erabiliko duen ibilgailuari Gizarte Segurantzaren alta ez ematea edo dagokion kotizazioa ez ordaintzea, eta, gutxienez ere, lan ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboan ezarritakoa beteko dela bermatzen duen lan kontratua ez egitea.

h) Jabeak berak edo soldatapeko gidariak ez gidatzea ibilgailua, ezgai diren edo alargun dauden jabeen kasuan izan ezik.

Udalak hartuko du lizentzia iraungitzat jotzeko edo kentzeko erabakia, 1.398/93 Errege Dekretuak araututako espediente bideratu ondoren. 4. ATALA. LIZENTZIAREN JABEEN ETA GIDARIEN ERANTZUKIZUNA

39. artikulua.

Alkateak ezarriko ditu taxi zerbitzuko lizentziaren jabeak zein gidariak araudi honen edo bando eta ebazpen osagarrien kontra egindako hutsengatiko zehapenak.

Lizentziaren jabeek zein gidariei ezarritako zehapen guztiak dagozkien espedienteetan jasoko dira.

40. artikulua.

Araudi honen kontra egindako hutsak arin, larri edo oso larritzat joko dira.

Araudi honetako beste artikuluetan emandako kalifikazioak gorabehera, hutsak honela sailkatuko dira, oro har:

A) Lizentziaren jabeek egindako hutsak:

Honakoak joko dira huts arintzat:

a) Ibilgailua behar bezala zainduta ez izatea eta barrualdea oso txukun ez egotea.

b) Gidatzeko udal baimena izan arren, gidaiariak gidatzen duen ibilgailurako baimena ez izatea.

c) Zerbitzua ez ematea, gehienez astebetez, ibilgailua hondaturik egon gabe edo zentzuzko beste inolako arrazoirik izan gabe.

d) Baimenik gabe udalerritik ateratzea, baimena beharrezkoa izanez gero.

Honakoak joko dira huts larritzat:

a) Araudi honetako 27. artikuluan eskatutako agiriak ez izatea.

b) Ibilgailua zerbitzuan erabiltzea arauzko baldintzak betetzen ez dituenean.

c) Zerbitzua astebetez baino gehiagoz eman gabe egon behar izanez gero, alkateari zergatiaren berri ez ematea, gertatutakoa gertatu eta hamabi ordu iragan baino lehen.

d) Urtero egiten diren ikuskapenetan nahiz Udalak noiznahi agintzen dituenetan aurkitutako akatsak ez konpontzea eman zaion epean.

e) Udalak agindutako txandan zerbitzua ez ematea, txandak ez errespetatzea edo itxurak egitea betebehar hori ez betetzeko.

f) Kontagailua aztertu gabe izatea eta bere osagaiak behar bezala ez zaintzea.

g) Bidaiarien seguratasunerako beharrezko diren konponketak ez egitea.

h) Lizentzia soldatapekoak zirelako eskuratu dutenek zerbitzua pertsonalki ez ematea.

i) Geralekuetan ez agertzea.

j) Bidaiariak beste udalerrri batean hartzea, hiriarteko garraio gaietan erabakimena duten erakundeek beren arauetan egindako salbuespenak salbu.

k) Bi hilabeteen lau huts arin egitea, edo hamar urtebetean.

Honakoak joko dira oso huts larritzat:

a) Urtebetean lau huts larri egitea.

b) Araudi honi lotuta alkateak emandako aginduak nabarmenki haustea.

c) Lizentziak arauari men egin gabe eskuz aldatzea edo ibilgailua besteri lan egiteko utzi zein alokatzea; zalantzarik izanez gero, alkatearen ahalmena izango da, frogak ikusita, iruzurra egin den erabakitzea.

d) Zerbitzutik baztertutako ibilgailu batekin zerbitzua ematea.

e) Agiri honetan araututako iharduera edo lanbidea dela eta, Zigor Kodeak faltsukeriazkoztat jotzen dituen delituak egitea.

f) Indarrean dauden tarifak baino gehiago edo gutxiago kobratzea bezeroei.

B) Gidariak egindako hutsak:

Honakoak joko dira huts arintzat:

1. Gidaria bera txukun ez joatea.
2. Ibilgailuaren barruan erretzea, bidaiariak barruan daudela.
3. Zerbitzua emateari uko egitea, 33. artikuluan egindako salbuespenak salbu.
4. Bezeroak zain dauden edo deitu duten hurrenkeraren arabera ez hartzea.
5. Bezeroak gizalegez ez tratatzea.
6. Bide motzenetik edo bidaiariak esandakotik ez joatea, bidezko arrazoirik izan ezean.
7. Geralekuetan eta zerbitzuan daudela, lankideak elkarrekin eztabaidatzea.
8. Kontagailua estalita eramatea edo, ibilgailua alokatu gabe egonda, bandera jaitzita izatea.

Honakoak joko dira huts larritzat:

1. Bi hilabetean lau huts arin egitea, edo hamar urtebetean.
2. Kontagailuak hutsen bat izan arren zerbitzua ematen jarraitzea, hutsa gidariari ezin lepora bazaio ere.
3. Bidaiariei, oinezkoei edo beste gidariei garrantzi gutxiko irain edo mehatxuak egitea.
4. Bidaiariak zein agintaritzaren ordezkariak hala eskatuta, erreklamazio liburua edo ibilgailuaren agiriak zein gidariarenak berarenak ez aurkeztea.
5. Araudi honetako 29. artikuluan jasotako betebeharra ez betetzea.
6. Ibilgailua funtzionatzeko egoera onean egon ez eta zerbitzuan erabiltzea.
7. Agiri honetan araututako zerbitzu edo iharduera dela eta egindako hutsen epaiketan kondenatu gertatzea.

8. Lanaldiaren barruan, ibilgailua aski argi ez duten kaleetan edo eremu bakartietan geldirik izatea, arauzko argiak piztu gabe.

9. Araudi honetako 7. artikuluaekin bat etorritz, alkateak ibilgailua zerbitzutik baztertzeko emandako aginduari men ez egitea.

10. Agintaritzaren ordezkariak zerbitzua dela eta emandako legezko aginduak ez betetzea edo zirkulazio arauak hausteagatik zehapena jasotzea, egindako hutsa hurrengo zatiko 7. puntuan ageri dena izan ezik.

11. Geralekuetara ez joatea, bidezko arrazoirik izan gabe.

12. Bidaiariak beste udalerrri batean hartzea, hiriarteko garraio gaietan ahalmena duten erakundeek beren arauetan egindako salbuespenak salbu.

Honako hauek joko dira oso huts larritzat:

1. Urtebetean lau huts larri egitea.

2. Bidaiaria bidezko arrazoirik gabe bazterrerera uztea, eskatutako zerbitzua eman gabe.

3. Kontagailuak bortxatua edo joa izan dela agertzen duten aztarnak izan arren, zerbitzua ematea.

4. Mozkorturik gidatzea.

5. Ibilgailuan utzitako edo galdutako gauzak hogeita lau orduz baino gehiagoz gordetzea, Udaltzaingoko Ikuskaritzaren edo eskumena duen beste edozein organoren eskuetan jarri gabe.

6. Agiri honetan araututako zerbitzu edo iharduera dela eta egindako faltsukeriazko delitu batengatik Justizi Epaitegiak kondenatzea.

7. 339/90 Errege Dekretuko 65. artikulua oso larritzat jotako arau hausteak egitea eta araudi honi lotuta alkateak ematen dituen aginduak ez betetzea.

41. artikulua.

Aurreko artikuluan sailkatutako hutsei honako zehapenak dagozkie:

a) Huts arinei:

Oharpena.

Lizentzia edo gidatzeko udal baimena kentzea, gehienez ere hamabost egunez.

Isuna, gutxienez mila pezetakoa eta gehienez bost milakoa.

b) Huts larriei:

Lizentzia edo gidatzeko udal baimena kentzea, gutxienez hamasei egunez eta gehienez sei hilabetez.

Isuna, gutxienez bost mila eta bat pezetakoa eta gehienez hamabost milakoa.

c) Oso larriei:

Lizentzia edo gidatzeko udal baimena urtebetez kentzea.

Lizentzia edo gidatzeko udal baimena betiko kentzea.

Isuna, hamabost mila eta bat pezetakoa gutxienez eta hogeita bost milakoa gehienez.

Espedientearen ardura duen udal organoak berak alkatea edo Gobernu Batzordea erabaki beharko du hutsaren larriari dagozkion zehapenetatik zein ezarri kasu bakoitzean.

Nolanahi ere, oso larritzat jotako huts hauetako bat eginez gero, gidatzeko udal baimena behin betiko kenduko zaio gidariari bai eta lizentzia ere, gidaria lizentziaren jabea izanez gero:

a) Mozkorturik gidatzea.

b) 339/90 Errege Dekretuko 65. artikulua oso larritzat jotako hutsetakoren batengatik ebazpen edo epai finkoa jasotzea eta araudi honi lotuta alkateak emandako aginduak nabarmenki haustea.

c) Agiri honetan araututako iharduera edo lanbidea dela eta, Zigor Kodeak faltsukeriazkoztat jotako delituak egitea.

42. artikulua.

Zehapenak ezartzeko orduan, Zehapenak Ezartzeko Ihardunbideari buruzko Araudia (1.398/93 Errege Dekretua) bete beharko da.

Xedapen Gehigarria.

Araudi hau behin betiko onartu dela Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN bidez jakinarazi eta biharamunetik aurrera egongo da indarrean.

Donostia, 1997ko abenduak 5. Alkateak, Francisco Beloqui San Sebastián, Ide Publiko eta Hiritar Segurtasuneko Delegatua d.b. (762)(12145)